

Alderdiaren aurka, katalana defendatu ahal izateko



ANTONI PASTOR Espainiako Estatu-ko Balear Uharteetako parlamentuko diputatua da eta Manacorrek alkatea. Bere alderdiak, PPk, alderditik bota du parlamentuan PPren hizkuntza politikaren aurka bozkatzegatik. Balear Uharteetako PP nabarmen ari da katalanaren aurka-ko hizkuntza politika egiten. Vila-web agerkari katalanak egindako elkarrizketan kazetariak galdetu dio ea zergatik parlamentuan ez zuen PPko beste kide guztien bozka bera eman. Hona erantzuna: “Hizkuntza oinarritzko gaia da eta neure-neurea. Hizkuntza herri baten nortasun ezaugarria da eta ezin da arriskuan jarri. Beraz, nire kontzientziaren arabera eman dut bozka, alderdiaren aginduak baino garrantzitsuagoa da hori. Hizkuntza eta nortasuna talde politikoen gainetik daude.” ■



Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

Telebista-lizentzia lehiaketan euskarak 5 puntu balio ditu

NAFARROAKO GOBERNUAK hamabost urterako 22 telebista lizentzia atera ditu lehiaketara: bi herrialde osorako eta beste hogeia bost eskualdetako tokiko telebistentzat: Iruñerrian, Lizarrerrian, Zangozaldean, Tafalla inguruan eta Tuterako Merindadean. Lizentziak lortzeko lehian izango diren 100 puntuetatik bost izango dira euskararen erabilera kontuan hartuko dutenak. Eta bost puntu horiek lortzeko, nahikoa

izango da telebistaren produkzio propioaren %20 euskaraz izatea.

Lehiaketan aintzat hartuko diren baldintza gehienak teknikoak diren arren, edukiei dagozkienak ere zehaztu ditu Gobernuak: “Nafarroako Foru Erkidegoaren identitatea, instituzioak eta sinboloak errespetatzea, eta foru erkidegoa berezko lurralde gisa agertzea, bereizita, bai grafikoki eta bai deskribapenetan”. ■



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

Talaian

Washingtonetik Marikanara, Gasteiz ahaztu gabe

ARTIKULU HONEN IRAKURLEA harritu egingo da izenburuarekin, elkarrengandik oso urrun dauden hiriak lotzen baititu: Washington AEBetan, Marikana Hegoafrikan eta Gasteiz Euskal Herrian. Hain urrunekoak eta aldi berean hain igoalak, agintean dagoen sistema kapitalistak eta bere poliziek hiru hirietan izan duten ekintza asasinogatik. Azken egunetan langile masakrea gertatu da Marikanan, poliziak platino enpresa bateko 34 meatzari beltz hil ditu. Multinazional ingelesa Lonmin da, zuriak kudeatua. Arrazoia, soldatak hobetzearen egindako greba. Meatzariek 400 euro irabazten dituzte eta 1.250 euro eskatzen zituzten, egungo soldataren hirukoitza, euren txabolak abandonatu ahal izateko. Lanera itzultzen ez baziren despedituak izango zirela esan zieten, baina hala ere grebari eutsi zioten: “Jendea hilda dago eta oso haserre gaude; lanera itzuliko bagina alferrik hil izan balira bezala izango litzateke”, esan du grebalarien bozeramaile batek.

Historia errepikatu egiten da. 1886an ehunka langile jipoitu zituzten, 14-16 orduko lan-eguna murriztea eskatu zutelako. Salatzeko hiri ugari-tan manifestazioak egin zituzten eta horren ondorioz sei langile urkan hiltzera kondenatu zituzten. Geroztik ospatzen da Maiatzaren Lehena mundu osoan. Gure artean, 1976an, polizia frankistak Gasteizko langileak masakratu zituen. Lan hitzarmenen alde greba orokorra egiten ari ziren eta haietako bost langile poliziaren balek hil zituzten. Ondorioa: gaur, atzo bezala, kapitalismoak boterea eta etekinak izaten jarraitu nahi du, eta prest dago polizia eta kudeatzaile politikoen bidez jendea hiltzeko. AEBetan, Hegoafrikan, Euskal Herrian eta mundu osoan. Jakin behar da hori, eta prestatuta egon. ■

Juan Mari Arregi

